

ANTZERKIA. Zaragozako Muac konpainiak 'Morros de col' lana eskainiko du asteburuan

Umorea eta musika dira nagusi NAEren '2002 Golfos' zikloan

Eskolak berak ekoiztako 'Reich' obra aurkeztuko dute programan

Edurne Elizondo | IRUÑEA

Nafarroako Antzerki Eskolak (NAE) 2002 *Golfos* antzerki zikloa antolatu du, ekaina bitarte. Zortzi ikuskizun ikusi ahal izanen dira eskolako aretoan denbora tarte horretan, eta guztiek hainbat ezaugarri komun izanen dituzte: kafe-antzokiko giroa eta harreman zuzena publikoarekin. Emanaldi guztiak asteburuan izanen dira, 20:00etan.

NAEko arduradun Patxi Larreak zikloaren kalitatea nabarmendu zuen, eta 2002 *Golfos* antolatzea eskolarentzat «apustu bat» dela gaineratu zuen. «Apustu bikoitza», argitu zuen, zikloa antolatu ez ezik, ikuskizun bat ere ekoizti baitu NAEk, aretoan aurkezteko.

Zikloa asteburu honetan hasiko da, Zaragozako Muac konpainiaren *Morros de col* obrarekin. Ana Garcia eta Laura Gomez-Lacueva aktoreek betetzen dituzte atzezaneko bi emakume protagonisten rolak. «Elkarri gorrotoa diote, baina ondoan bizi dira, eta biak bakarrik daudenez, bakoitzak bestea

jasan behar du» esanez laburbildu zuen Gomez-Lacuevak obraren mamia. Helduentzako clown ikuskizuna dela argitu zuen, eta umorea dela nagusi.

NAEk antolatutako zikloaren barnean, larunbatean eta igandean eskainiko dute Muac taldeko aktoreek euren lana, eta, bihar, berriz, Andrea kolektiborekin eskutik ikusi ahal izanen da Zaragozako konpainiaren obra, hori ere NAEko aretoan, 21:00etan.

Datorren asteburuan, hilaren 20 eta 21ean, El Figurante *La última bala* aurkeztuko du. Jose L. Esteban da El figurante; Zaragozako bera ere. «Ikuskizun dinamiko da oso, eta publikoaren parte-hartzea bilatzen du», azaldu zuen Larreak, NAEko ki-deak.

NAEk ekoiztako lan bat

Zikloko hirugarren obra izanen da Nafarroako Antzerki Eskolak berak ekoizti duena, *Reich (terror y miserias)* izenburuko lana, alegia. Bertolt Brecht idazlearen testuak abiapuntutzat hartu ditu NAEko zuzendari Javier Perez Eguarasek, «egungo gizarte gatazkatsuen errepaso egiteko», azaldu du Larreak.

Perez Eguarasek zuzendu du lana, eta Patxi Lobato, Maria Lusarreta, Alvaro Martinez, Mikel Mikeo, Ruben Nagore, Cesar Sanchez eta Edelwais Hernandez dira aktoreak. «Gai gorgor eta sakona izan arren,



EGUNKARIA

Muac konpainiako aktoreak, *Morros de col* obrako eszena batean.

aktoreek kabareta baliatzen dute», azpimarratu zuen Larreak. Dantzak ere badu lekurik obra horretan. Josu Mujikak prestatu ditu koreografiak.

NAEk prestaturiko *Reich* obra hilaren 27 eta 28an, eta maiatzaren 1, 2, 3, 4 eta 5ean eskainiko dute eskolako aretoan.

Ondoren, maiatzaren 11 eta 12an, Pepe Viyuela aktoreak *Encerrona* bere ikuskizuna aurkeztuko du Iruñean. 1995. urtean ekarri zuen Viyuelak lan hori aurrenekoz NAEren aretora, eta geroztik arrakasta itzelez aurkeztu du hamaika tokitan. Denboraren poderioz, obra al-

datuz joan da Viyuela, eta egungo bertsioa aurkeztuko du *Golfos* zikloaren barnean.

Maiatzaren 17an ekitaldi berezia izanen da ziklo horretan, musika izanen baita protagonista: Adriana Olmedok *Marseille* diskoa aurkeztuko du. Abeslari eta aktore da Olmedo.

Azken obretan ere musika izanen da: maiatzaren 18 eta 19an tangoa izanen du hizpide Mirian Penelak, eta 24, 25 eta 26an *Soy un circo* aurkeztuko du Psicosis Gonsalessek, tangoaren inguruan. Ekainaren 1 eta 2an *Mama, quiero ser autista* aurkeztuko du Daniel Higienicok.

DANTZA. Patrick de Banaren 'Nightsongs' eta Nacho Duatoren 'Duende' ere ikusgai izango dira

Espainiako Dantza Konpainia Nazionalek 2-k 'Ni un alma' estreinatuko du bihar Arriagan

Erredakzioa | DONOSTIA

Nacho Duatoren gidaritzapean, Espainiako Dantza Konpainia Nazionalek 2-k (CND2) Bilboko Arriaga Antzokian Yoko Taira koreografoaren *Ni un alma* ballet apurtzailea estreinatuko du bihar, eta igandera bitarte egongo da koreografia hau ikusgai.

Yoko Tairak arimek eskaintzen die *Ni un alma* deituriko obra hau, gizakien eta euren ari-men arteko erlazioaren inguru-

ko obra bat da, sortzailearen esanetan.

Estreinuak ez diren beste bi koreografia ere eskainiko ditu CND2-k hiru egun hauetan, *Nightsongs* da bata, eta *Duende* bestea. Lehen koreografia Patrick de Banarena da, eta musika, berriz, Arvo Part eta Alberto Iglesiasen ipiniko dute. Obra honek maitasuna, tristura, gorrotoa, eromena eta gizakiek sentimendu hauekin dituzten erlazio zuzenak adierazten ditu. Azkenik, bakardadea soilik gel-

ditzen da sentimendu hauen atzean, Patrick de Banak ondorioztatzen duenez.

Bestalde, Nacho Duato izan da *Duende* koreografiaren egilea, eta musikari lanak Claude Debussyk egin ditu. 1991n estreinatu zuen Nederlands Dans Theater konpainiak. Sortzailearen arabera, obra hau erabat eskulturala da.

Hamalau dantzarik osatzen dute Espainiako Dantza Nazionalek 2, konpainia honen helburua dantzariak euren bizitza

profesionalerako osatzea da. Nacho Duatok sortu zuen orain dela bi urte talde hau, eta hasiera batean haren obrak bakarrik dantzatzeko zituzten arren, denboraldiz denboraldi koreografo berrien obrak hartu dituzte, besteak beste Tony Fabre, Patrick de Bana, Yoko Taira edo Nicolo Fonterenak.

Hurrengo zita, abeslari irlandarrarekin

Arriaga antzokiaren egitarauan hurrengo zita apirilaren 20an da, orduan Sharon Shanon abeslari irlandarra etorriko da. Ikuskizun hori Eszena Irekia zikloaren barruan sartzen da.

euskararen
donostia
patronatu



antzerkia

- **"Bakartxoren zapatila zaharrak"**
Irrintzi produkzioak
Apirilaren 13an,
18.00etan
Intxaurrondo Berri
Kutur Etxean
- **"Marrubizko printzesa"**
Gus marionetak
Apirilaren 13an,
18.00etan
Lugaritz Kultur Etxean
- **"Kaio Luma zikina"**
Maskarada taldea
Apirilaren 19 eta 20an,
20.30etan
Lugaritz Kultur Etxean

ikastaroa

- **"Interpretazioa kamara aurrean"**
Apirilaren 12tik
maiatzaren 10era,
astelehenetik ostiralera,
16.30etatik 19.30etara
Pausoka ekoizpen
etxearen egoitzan,
Mundaiz pasealekuan
Irakasleak:
Kepa Gallego, Niko
Lizeaga eta
Agurtzane Intxaurraga
Izen-ematea eta
informazioa: 943297111
telefonoan

bertsolaritza

- **"Mende baten aldarriak hogeigarrenean jarriak"**
Bertso ikuskizuna
Bertsolariak: Jon Maia
eta Xabier Amuriza
Apirilaren 11n,
19.30etan
Altza herri ikastetxean
- **Bertso afaria**
Jexux Mari Irazu eta
Jokin Soroazabal
Apirilaren 13an,
21.00etan
Txalaka elkartearen

- **Bertso saioa**
Andoni Egaña, Maialen
Lujanbio, Jon Maia eta
Unai Iturriaga
Apirilaren 14an,
18.30etan
Antzoki Zaharrean